



Zer dugu ontzietan:

hiru koloretako pilotak ala hiru koloreko pilotak?




A



B



Hiru kolore**tako** pilotak ditugu A ontzian.




A

Koloreak hiru dira, baina pilotek kolore bakar bana daukate: batzuk **gorriak** dira; beste batzuk, **berdeak**, eta beste batzuk, **urdinak**.



B ontzian, berriz, hiru koloreko pilotak ditugu.



Pilotek hiruna kolore dauzkate.

B




Beraz:

hiru kolore**tako** pilotak

≠

hiru kolore**ko** pilotak



Adibide gehiago:

## ■ hiru urtetako neska-mutilak

- 2000ko, 2003ko eta 2005eko neska-mutilak

- 2003tik 2005era bitarteko neska-mutilak

## ■ hiru urteko neska-mutilak

- Hiru urteko adina duten neska-mutilak



Adibide gehiago:






## ■ bost leihotako loreontziak

(bost leihotan diren loreontziak)



## ■ bost leihoko etxeak

(bost leiho dituzten etxeak)



EHULKUren aholkuak

-ko/-tako

Euskara Zerbitzua

Hona zer dioen Euskaltzaindiaren 34. arauak auzi honetaz:

([http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua\\_0034.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0034.pdf))

Oinarrian zenbatzaileraren bat ageri delarik adina, prezioa, neurria, pisua... adierazten duten izenlagunak osatzen direnean, **-ko** da hobesten dena. Idatz bedi, hortaz:

- bi urte**ko** umea
- bost liber**ako** egunkaria
- hiru kilometro**ko** bidea
- hamar metro**ko** garaiera
- hiru aste**ko** egonaldia



Hona zer dioen Euskaltzaindiaren 34. arauak auzi honetaz:

([http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua\\_0034.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0034.pdf))

Baina **-ta-** atzizkia erabili beharrekoa izan daiteke zenbaitetan. Adibidez, nongo galderari erantzuten zaionean:

- hiru etxetako haurrak etorri zaizkit
- hiru etxeetako haurrak etorri zaizkit
- \*hiru etxeko haurrak etorri zaizkit



Hona zer dioen Euskaltzaindiaren 34. arauak auzi honetaz:

([http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua\\_0034.pdf](http://www.euskaltzaindia.net/arauak/dok/Araua_0034.pdf))

Zenbaitetan **-ko/-tako** bikoteaz baliatzea ezinbestekoa izan dezakegu bereizketak egiteko:

■ zazpi urte**ko** ardoa

(botilan dagoen ardoak zazpi urte ditu)

■ zazpi urte**tako** ardoa

(ardoa zazpi urtetan, ez zortzitan, bildua izan da)

■ zazpi urte**etako** ardoa

(aldez aurretik ezagutzen ditugun zazpi urte diferenteetan zehar bilduriko ardoa. Azkeneko zazpi urteetan, esaterako)

